

FUNTSEZKO JARDUERAK

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardutzeko.

Funtsezko baliabideak bezalaxe, funtsezko jarduerak ere ezinbestekoak dira balorezko proposamena egiteko, bezero potentzialengana iristeko, bezeroekiko harreman eraginkorrak eraikitzeke eta diru sarrerak lortzeko.

Horrela banatzen dira gure enpresaren funtsezko jarduerak:

1. **Arropa Bilketa eta Harrera:** Trukatzeke interesa duten pertsonen ekarritako arropa jaso eta egoera ona dutela ziurtatzea. Hau da, bakarrik garbituta eta erabilgarri dauden arropak onartuko ditugu.
2. **Arropa Hautaketa eta Katalogazioa:** Jasotako arropa mota, tamaina, eta estiloen arabera sailkatuko dugu. Honek truke prozesua arintzen lagunduko du eta bezeroentzako erraztuko du eurentzako arropa egokia aurkitzea. Adibidez, arroparen neurriak bereiztuko ditugu eta multzo ezberdinetan jarriko dugu: XS, S, M...
3. **Trukaketa sistema bat ezartzea:** erabiltzaileek arropa ekartzean puntu edo kredituak lortuko dituzte, eta horiekin beste arropa batzuk hartu ahalko dituzte. Gure kasuan, arropa bat trukatzeko kreditu bat lortuko dute bezeroek eta 10 kreditura heltzean, arropa bat dohain hartzeko aukera izango dute .
4. **Erakusketa eta Erakargarritasunaren Antolaketa:** Dendako arropa erakargarri jarriko dogu, erabiltzaileek estilo eta aukera anitz aurki ditzaten. Denda, dena modu egokian antolatuko dogu.
5. **Komunitatea eta Ekintza Bereziak:** Tailerrak, moda jasangarriari buruzko hitzaldiak, edo ingurumenari buruzko ekitaldiaetan parte hartuko dogu. Gure hitzaldiak pertsonak ingurumenari buruz kontzientzatzeko erabiliko ditugu
6. **Iraunkortasuna eta Higienea Bermatzea:** Arropa garbi eta egoera onean dagoela bermatzeko neurriak hartuko ditugu. Kasu batzuetan, arropa desinfektatzea beharrezkoa izan daiteke. Eta beste kasuetan, arropa zikina ekartzen badigute ez da onartua izango.